

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Enplegua eta kontzertazio soziala izan da, Barcina Lehendakariak UGT, CCOO eta CENrekin egin duen lehen bilkurako gaia

Bat etorri dira Nafarroarentzat hain emaitza ona eman duen itun sozialarekin jarraitu eta hura sustatzeko beharrarekin

Miércoles, 27 de julio de 2011

Kontzertazio soziala eta enplegurako itunaren eguneratzea izan da, bai IV. Planaren (2012) azken urteari dagokionez bai 2013. urtetik aurrera V. Plan bat prestatu eta negoziatzeari dagokionez, Nafarroako Gobernuaren Lehendakari Yolanda Barcinak eragile ekonomiko eta sozial nagusiekin gaur izan duen bilkuraren gai nagusia

Bilkura goizeko azken orduan egin da Lehendakariaren bulegoan, eta bertan parte hartu dute: Nafarroako UGTko idazkari nagusi Juan Goyen Delgadok, Nafarroako CCOO sindikatuko idazkari nagusi Jose M^a Molinero de Frutosek, eta Nafarroako Enpresarien Konfederazioko (CEN) lehendakari Jose Antonio Sarria Terronek.

Halaber, bertan izan dira: bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilari Alvaro Miranda Simavilla eta Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuko kontseilari Lourdes Goicoechea Zubeldu.

Ordubete iraun duen bilkuran, Lehendakariak eta eragile ekonomiko nahiz sozialek bat etorri dira aurreko urteetan izan den kontzertazio sozial horrekin jarraitu eta hura sustatzeko beharrarekin, Nafarroako ekonomia eta gizartearentzat emaitza oso onak ekarri dituen, bere egoera beste autonomia erkidegoekin alderatzen bada, batez ere.

Barcina Lehendakaria: "Enpleguaren sorrera da Gobernu



Ezkerretik eskuinera, Goyen eta Molinero, Barcina Lehendakaria, Miranda lehendakariordea eta Goicoechea kontseilaria



Barcina Lehendakaria bilkuraren ondoren egindako agerraldian.

honen lehen helburua"

Bilkura amaitzean, Yolanda Barcina Lehendakariak hedabideei egindako adierazpenetan azaldu du, azken egunotan egindako bisita instituzionalen errondaren ondoren, "Lehendakari moduan nire bulegoan egin beharreko lehen bilkura eragile ekonomiko eta sozialekin izan behar zuen, Gobernu honen lehen helburua den enpleguaren sorrera sustatzeko".

Adierazi du, kontzertazio soziala eta Nafarroako Gobernuaren eta eragile sozial horien arteko enpleguari buruzko akordioa "oso emankorra eta garrantzitsua" izan dela azken urteotan. Haren emaitza da, Espainiako beste autonomia erkidegoekin alderatuz, Nafarroa hobeto dagoela eta krisi ekonomikoak ez diola hainbeste eragin. "Kontzertazio sozialak eta enplegu-planak enplegua sortzea dakarren esparru soziala sortzen dute, eta berpizte ekonomikoa eta, beraz, enplegua bizkortzen duen tresna dira". Hori dela eta, Gobernuaren apustua haiek bultzatzen segitzea da.

José M^a Molinero (CCOO): "Moderna Planaren B aldea"

José M^a Molinerok bere adierazpenetan azpimarratu du bilkuran planteatu den "itun sozial berria Moderna Planaren B aldea izan daitekeela eta izan behar duela, Nafarroako plan ekonomikoa dena; itun sozial batekin batera joan behar du, itun horri bidea eman diogu eta 2012. urtean zehar eraiki nahi dugu". Aipatu duenez, enplegua sortzea, kalitatezko enplegua eta gazteentzako enplegua helburutzat duten enplegu politika aktiboak hitzartzea da kontua. Jose M^a Goyen (UGT): "Elkarrizketak eta kontzertazioak eman diote Nafarroari emaitza onenak"

Bilkuran UGTko ordezkari izan den Juan Goyenek bere adierazpenetan azpimarratu du "Nafarroako Gobernuaren eta eragile sozial nahiz ekonomikoen artean azken urteotan izandako elkarrizketak eta kontzertazioak krisi-egoera batean izan zitezkeen emaitza onenak ekarri dituela; Nafarroa, gainera, ondoen kokatuta dagoen autonomia erkidegoa da, eta Europako lehen 32 eskualderen barnean dago". Horregatik, gaineratu duenez, beharrezkoa da elkarrizketa soziala sustatzen jarraitzea "berez horrek enplegua sortzen ez badu ere, errekonferazio ekonomikorako esparrua sortzen baitu".

José Antonio Sarria (CEN): "Enplegurako neurri indartsuak behar dira"

CENeko lehendakaria, berriz, enplegurako itun berri bat adosteko beharrezkin bat agertu da, Nafarroari hain emaitza onak eman dizkion aurreko ildoari jarraiki. Zehazki, enpleguaren alde egiteko neurri "indartsuak" sustatzeko beharrez aritu da; haien artean prestakuntza enpresen eskariari egokitzeko beharra aipatu du, enpresen beharrak aldatzen baitoaz denborak aurrera egin ahala.

Galería de fotos



Jose M^a Molinero, bere agerraldian



Juan Goyen (UGT)



Jose Antonio Sarria (CEN)